D.a 1.a

Christinaduben Excelencia, eta dignidadea eta Cruce Santubena.

Esan eguidazu, Christinaduba zara?
Bai, Jesu Christo gure Jaunen graciaz.
Cegaiti esatendozu Jesu Christo gure Jaunen graciaz?
Cegaiti ez nazan Christinauba neure merecimentu bacgaiti.
Cer da Christinadu izatea?
Yzatea Christoren Discipuluba.
Ce dignidade recivietandau guizonac Christau eguiten daubenean?
Eguiten da bendicinoen seme, Jaungoicoen seme adoptivo, eta ceruco heredero.
Eta Christau eztana cer da?
Gueraquetan da maldicinoen seme, Demoniuen esclavo, eta deseredaduric ceruti.
Chito ondo esanic dago Christauba zareana, eta sinisquetandot izango gariala emen gaozen gustioc, ez gueure merecimentu propioz ezpada Jesu Christo gueure Jaunen merecimentu infinitoac gaiti, guira izan guindubala Crisadu bere misericordia andija gaiti, ez infielen artean; cegaiti an jaijo bagin

ña izango guinian euzac leguez maldicinoen Semeac, eta Demonioen esclavuac, ezpada Christauben artean, eta ala gara bautismo Santuen medioz bendicinoen Semeac, Jaincoen Seme adoptivoac, eta gloriaco here deroc. Beneficio au, cein dan preclarissimoena, eta especialena, S.n Gregorio Nacianceno dinuana leguez, eugui bearguengue beti presente ija aprade cietaco Jaunari, ija corresponditaco operacinoaq.n Christauben izenari; izanic Jesu Christo gure Maisuben Discipulu eguiazcoac, ceñec bere Dotriniaz, eta exemplubaguin emon euscun humildadeco, pacienciaco, pobrezaco, purezaco, eta Caridadeco leccinoac: Exemplum dedi vovis &c. Cuidado fielac, cegaiti Maisuba imitetan eztaben discipuluba, da digno castiguben.-

Nor da Christo?

Da Jaineo, eta guizon eguiazcoa.

Cer esan gura da Christoc?

Vnguiduba.

Cegaiti?

Cegaiti izan zan vnguiduba Espiritu Santuben graciaz, eta doiaz.

Cer esan gura dau Jesusec?

Salvadorea.

Cegaiti?

Cegaiti Salvatu, eta redimida guinduban bere

odol preciosoagaz, eta bere Doctrina Christianiaz eracutsi euscun ceruco videa:

Cer Doctrina Christiana?

Da Jesu Christo gure Jaunac eracutsi euscuna, eta Ama Eliza santa Catholica Erromacoac eracusten deuscuna.

Amodioaz asteco gueure Maisuben Doctrina, da conveniente jaquitea Maisuben dignidadea, eta doctrinien excelencia. Orregaiti ondo esanda Christo gure Maisuba dala Jaunco, eta guizon equiazcoa; Jaunco equiazcoa, Aita Jaincoen semea dalaco; Guizon equiazcoa, Maria Santissimien semea dalaco, cegaiti encarnadu zan bere entraña garvietan. Ceini equiruke izan deitequean andisagoa Jesu Christo gure Maisuben dignidadea, eta gran deza; Ysenac ere dira soberanoac, eta misteriosoac: Jesus, eta Christo: Jesus da izen propijua, Christo da comuna, eta esan guraa dau Jaunen unguiduba; Cegaitic antiguaco leguean unguietan cirian Sacerdoteac, Erregueac, eta Profetac: eta Christo Profeta, Erreguea, eta Sacerdote equiazcoa leguez izan zan unguiduba, ez obra humanoaz, ezpada Espiritu Santuben gracia divinoz, encarnadu zan instantean. Jesus, cein dan izen propijua, ifini eutsoen circunci

dadu euben eguneam, eta annunciaduba ordueo Aingue
ru S.n Gabrielegaiti, cean gura dau salvadorea, edo
redemtorea; ala dei eutzan orduco Profeta Zacariasec:
Ecce Rex tuus veniet tibi justus et salvator. Begui
ra eguizu etorrico dala zure Erreguea (esaten deut
zo Sionen alabari) justua, eta salvadorea; salvado
rea deritzo, cegaiti salvadu, eta redimidu guinduban
bere odol preciosoen costuban, botetan ebela gu libredea
gaitic pecatuben, eta Demoniuen tiranisati, eta cegaiti
eracutsi deuscun ceruco videa bere exemplubaz, eta
Doctrina Christianiaz. Christoc eracutsi eben Doctri
na, ha bera eracutsi euben Apostolubac ere; eta atse
bera da Eliza Ama santa Chatolica Erromanoac
eracusten dabena bere Ministro sacerdoteen medijoz,
ceintzuc berte fin santu arroen antean dagoz señala
duric Jaincoagaitic eracusteco, eta prediquetaco fielai
Doctrina, eta Evangelioco leguea. Eta especialmen
te Doctrina Christiana eracusteco obligacinoa daug.
Maisubac, Gurasoac, Ugazabac, eta Maestroac, baco
chac bere talentoaz conforme; baña gustiac confor
me sustancijan.

De la Señal de la Cruz.

Cein da Christinauben señalea?

Cruce santua.

Cegaitic?

Cegaiti dan Christo Crucificaduben figu

zea, ceñetan redimidu guinduban.

Zembat modutara eguitendau Christaubac señale au?

Bitan.

Ceintzuc dira?

Ceñatzea, eta Santiguatcea.

Cer da señatcea?

Da eguitea iru Cruce escumaco atz andijas, lelen goa becoquijan, bigarrena aoan, irugarrena bularretan.

Esasu nola?

Cruce Santuen señalegaiti, gueure arerijo etati, libradu gaguizu gueure Jauna, eta Jaincoa.

Cegaiti señatzen zara becoquian?

Jaincoac libradu gaguian pensamentu guestoetatic.

Cegaiti aoan?

Jaincoac libradu gaguian berva guestoetatic.

Cegaiti bularretan?

Jaincoa libradu gaguian obra eta deseo guestoetatic.

Crucea, Jesu Christo gure Jauna ill zan baño lee nago zan patibulo afrentosoa, edo esango baiguseben leguez, urcamendi infamea, ceñetan ajusticietan cituben malhechoreac; baña Jesu Christo gure Jaunac eriotcea artueben ezquero, ain ennoblecidurie guel ditu zan, nola ija Christaubac venezetan dogun seña le, eta distinciño nobletzat, ceñec Jaincoen seme

adoptivoac leguez, distinguietan gau Ydolatra, Pagano, eta Gentiletati, eta baita escudo edo armatzat, ceintzu caz defendietan gazian gueure enemigoetatic.

Cruce au eguiten dogu modu bitan, bata da Signatzea, eta bestea Santiguatcea. Señatcen gara becoguian, Jaincoac libradu gaguijan pensamentu guestoetati, eta emon deigun fortaleza vencietaco tentacinoac, eta con fesetaco, eta defendietaco valoreaz profesetan dogun fede Catholicoa.

Aoan signatcen gara Jaincoac moderadu, eta templa du daguijan gure aoa, eta miina, alaco moduban, nola bacarric berva eguin daigun convenidana, eta importa dana bacarric, eta desmandadic eztedin miina berva donguetan, eta pecatu diriametan; orregaiti escaquetan eutzan Jaincoari Davidec ifini eguijala guar dia bere aoan, eta circumstancijaco atea bere espanetan: Pone Domine, custodiam ori meo &c.

Azrenez señatcen gara bularretan, Jaincoac libradu gaguijan afecto edo deseo donguetati, eta consiguientemte obra guestoetati, cegaiti dirian deseo donguecen alabac; eta nola oneec urteten dauben viotzeti, eta viotza da go bularretan, orregaiti señatcen gara bularretan.

Ce da gauza da Santiguatcea?

Da eguitea Cruce luce bat escumaco escubaz becoquiti bularretara, eta ezquerreco sorbaldati escu

macoza, esaten dala: Aitien, eta Semien, eta espiritu
Santuen izenean: Amen Jesus.
Cegaiti eguiten da modu onetan?
Adietan emoteco Misterio andi bi: bata trinidade
Santissimoena, eta bestea: Verbo Divinoen encar
nauinoena.

Noiz eguin bear dogu Crucien señale au?
Obra onen bat asiten dogun guztian, edo aunqui
quetan garianean necesidade, tentacino, edo peli
gruzen baten, principalmente oeti jaquiten gari
anean, echeti urteten dogunean, Elizan sartcen
garianian, jatera edo lo eguiten goacenean.
Cegaiti aimberte vider?
Cegaiti dempora, eta lecu guztian Jainoac gor
de gaguijan gueure enemigoetati.
Santiguatcea (esandodana leguez) ezta beste gau
zarie, eguitea baño cruce luce bat becoguiti bula
rretara, eta ezquerreco sorbaldati escumacora, esa
tendala; Aitien eta Semien, eta spiritu Santuben ize
nean: Amen Jesus. Apostolu Sagraduba instituidu
euben Cruzien señale au gure fede Santuben Suma
edo compendijo leguez eguiteco facilidadeaz, eta Sarri
tan misterijo onen memoria: eta onegaiti ez baca
rric dagoz comprendidurie misterijo principal biac,
ceintzuc dirian, trinidade Santissimoena, eta encar

racinoena (leen esan dodana leguez) baita Jesu Christo gure Redemptorien pasinoen, eta eriotzien misterioac ere: eta aitu daguizuben clarubago, eta euqui daguizuben orainguino baño estimacino andiagoan Cruccea, eta eradu daguizuben devocino gueijagogaz entzun eguizube. ~~

Ysinten doguneean escumaco escuba edo atzac becoquian, eta esaten doguneean: Aitien, eta Semien, eta espiritu Santuben; manifestetan dogu, Jaincoagan dagocela iru persona distintoac Aitea, eta Semea, eta espiritu Santuba: izenean esaten dogusunean, aiquetan emoten dogu Jaincoen unidadea; au da Jaincoa dala bat, bat Jaquituria, bat vorondate divinoa; eta Jainco eguiazco bat: Cegaiti Jainco bacar batengan, eta iru persona distintoetan consistietan da. Zaini da Santissimoen Misterio Soberano au, cein esplica duco dot extensino andiagoaz Credoen leenengo articulubaw.

Encarnacinoco Misterijoa da Aita Jaincoen Semea cein dan Trinidade Santissimoco bigarren persona eguiten guizon gure Señora Maria Santissimien entraña Virginaletan: au significatan da escuba erorten danean becoquiti bularretara, esaten dogula, eta Semien. Bada onegaz aiquetan emoten dogu, Aita Eternoen Semea jatzi zala Ceruti, ceruba ichi baga,

encarnetara Maria Santisimien entranetan. Esandot jatci zala ceruti ceruba ichi baga, cegaiti Jaincoa dan immensoa, dago lecu guztian, eta eztau mudetan lecu ric, eta parasenic: gueiśago esaten da jatzi zala ceruti encarnetara, cegaiti impasiblea zala eguin zan pasiblea, immortaleti eguin zan mortala, eta immenso ti eguin zan chiquiña, umetan zala gure naturale ciagana, cein dan pasiblea, mortala, eta limitaduba.

Gure Redencinoen Misteriyoa edo Misteriyoac, eta Jesu Christo gure Jaunen pasinuena, eta eriotcena contemetan dira eguiten dogun Crucean bertan;
Bada acabetan dogunean formetan, eta iragoten dogunean escuba esquerreco sorbaldati escumarona, aitu beardogu Cruce Santuben mediyoz eta Jesu Christo gure Jaunac ari padecidu ebenagaiti redimidu guinduba la, eta irago guinduba la culparo estadu infeliceti (ceñec aiquetan emoten dabon esquerreco sorbaldiac) graciyaro estadu feliceera, eta dichosora, representetan dana escumaro sorbaldan. Ain misteriosoa, eta admirablea da Crucien señalea.

Onegaiti bada, euqui beardogu veneracino andian, eta usadu, Sn Geronimoc diñuana leguez, frequencia andiyaz: Ad omnem actum, ad omnem incessum manus pingat crucem.
Obraren bat ariten dogun guztian, eguin daigun

guztia Jesu Christo gure Jaunen izenean: In nomine Domini nostri Jesu Christi Goician jaiquiten garianean, echeti urteten dogunean, elizara sarteen garianean, oera goazenean, jaten asiten garianean, edocein bere trabaju, edo tentacinoan. Ala eguiten eben anti guaco Christaubac, eta ala eguin bear dogu guc ere, Jaungoicoac dempora, eta lecu guztian gorde gaguijan gueure enemigoetati, ceintzuc dirian Demonioa, Munduba, eta araguia; çegaiti Cruce Santuba dá, Santubac dijuena leguez, eta especialmente S.^n Ignacioc, S.^n Efrenec, eta S.^n Ciriloc, arma poderosoa defendietaco gueure enemigoetati, eta especialmente leguez eraguiteco Demoniori, cein beti dabil inguruca guri jausi eraguiteco, S.^n Pedro Apostolubac dijuana leguez; badaguelez eguiten dau Diabrubac Cruceti, Chacurrac maquillati leguez dijo S.^n Ciriloc. Gomi onen testimoniuc daucagu santu arioen vicitzetan.

Admirablea da S.^n Antonio Abaden exemplluba, cenegaiti referitzen dau S.^n Athanasioc, Crucien señaleaz burla eguiten eustela Demoniuai, ceintzuc burla eguin gura eutsen Santubari, tropa, eta figura espantosoaquin: Cenec esaten eusten bere Discipulubai Crucien Señalea, eta fede vicija Jesu Christogan cirala escudo inexpugnablea, eta muralla fuertea Diabruben maquinen contra. ~ ~ ~ ~ ~ ~

Ala pue eze burla eguingo deutepiu Demonioai; baña onetarako formadu bear dogu Crucea perfeccinoaz, fede az, eta devocinoaz; eta ez Christau devocino puchiko batzuc leguez, crucia formadu bearrean santiguatcen diriañean, edo ur bedeincatu artcen daubenean, egui ten ditube siñu, edo garabato batzuc, arbeguiti eu lijac quentcen leguez, emoten deutzela onegaz Diabru bari barreguzea; Jaincoen sierva batec ocasino ba ten ecusi ebena leguez.

Christaubac, esperimenta gura badogu Cruce Santu ben uso piadosoan berte anoen virtutea, eta efectoac, usadu bearda beragaz ondo, devocinoaz, eta perfeccino az. Formetan dogunean Crucea gorputzean, euqui bearda Crucificaduba viotzean; bestela da pintetea Cru cea, eta ez gravetea: eta orregaiti esan eben Sn. Agustinec: factorem querit Deus, signorum suorum, non pictorem. Jaincoac billaquetan ditubala bere signubac obretan ditubana, ez bacarric pintetan ditu bana.

Au encarguetan deutzubet neure viotz guztiti: eta guztiz gañean etorri zaitela puntualmente entzu ten doctrina Christiana, zegaiti guztiai asco importa deutse jaquitea ceruco videa, eracusten dana Doctrinan. Au da empleo celebradu bat, eta practicaduba santu arogaiti, aberaituba Aita Santuben Yndulgencia as

togaz, eta favorecituba Jaincoagaiti, eta bere Ama
Santissima gaiti maravilla arco, eta estupendoaguin.

Eta egongoda Gurasorik, egongoda Ugazabarik, euquino daubenac gauza chiquintzat eracustea euren familijai Doctrina Christiana, eta oracinoac?
O' Aitac, O, Amac, ce escura euquino dozube Jaincoen Tribunalean. Faltetan badozube obligacino onetara, bildur izan zaitece Juez Divinoen contu rigurosoen, eta sinistu eguizube, an eztozubela ija euquico Pro tectoratzat Maria Santissima, espada zeuben deucui doen Fiscal. ¡O' Jaincoac eztaguiala gura izan dedin ala! Eta onetaraco procuradu eguizube cumplietea ceuben obligacinoaguin, eta guztiz gañean encargue tan deutzubet, gura badozube eguin gusto singulara Jesu Christo gure Redentoreari, eta bere Ama Maria Santissimari, eta alcanzadu Jaincoagandi bere Santu ben medijos necesitetan dozubena, etorrizaitzela puntualmente entzutera Doctrina Christianen es plicacinoa, bada medijo onegaz ~~topraduco dozube~~ gueratuco zare erabatera instruiduric ~~an~~animan, eta faborecidubac Jaunagaiti (conveni bada) animan eta gorputcean: Ala esperetandot zuben devocino ti, eta confietan dot Jaunagan consoladuco zaubela zeuben necesidaden socorrubaz, eta gracien aumen tu ascogaz, eltcero ala seguru Gloriara.

MAN 708